

Eraldaketak



INMA ERREA CLEIX
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Kintsugi, edo *Kintsukuroi*, deitzen da zeramikazko objektuen hausturak konpontzeko teknika japoniarra. Wikipediak dioenez, errexinaz eta zilarrrezko edo urrezko hautsez egiten dute. Teknikaren abiapuntu filosofikoa da hausturak eta konponketak objektuen historiaren parte direla, eta erakutsi behar direla objektuen eraldaketa agerian uzteko. Hala tratatutako objektuek berriek baino gehiago balio dute.

Gure inguruan, garai batean, lapiko esmaltatuen ipurdiak erabileraren erabileraz zultzen zirenean, trapu zaharrekin konpontzen ziren (estu-estu bihurriturik zuloan sartu eta hura estaltzen zuten). Arrazoa arras pragmatikoa zen: lapikoen bizitza luzatzea ahalik eta gehien (edo aldian-aldian herrietara iristen ziren ijitoek konponketa hobea eman arte). Iraupen-ekonomia.

Jende askori arraroa irudituko zaio, baina garai batean gauza gehienak (euritakoak, kasu) konpontzen ziren, zakarrontzira bota beharrean, eta etxeak zaharberitutako objektuez beteta izaten ziren –esparatrapuz konpondutako betaurrekoen muturreko etsenplura iritsi gabe–.

Jonander Agirre Mikelez arkitektoaren artikulu batek (Eraikitzea helburu, 7K, 1270 zk., 2023/05/28) ekarri dizkit gogora hala *Kintsugi* teknika nola lapiko

zaharren behin-behineko konponketa haiek. Artikuluan, Suitzan, Basilean, ardo-biltegi bat etxebizitza-bloke bihurtzeko proiektua aipatzen du egileak: elementu batzuk kendu eta beste batzuk gordeta egindako eraldaketa, iraungitako erabilera bat beharrezkoa den beste batek ordezkatzeko.

Gizakiok trebe gara gure inguruko gauzak sortzen eta suntsitzen, eta errealitatea bihurritzen –infinituraino edo arras suntsitzeraino–. Segur aski, gure eboluzioaren gakoetako bat da espezie gisara. Gizateriak gauza berriak (objektuak, antolamenduak, planak, estrategiak...) sortzeko eta gorpuzteko gaitasun izugarria erakutsi du, onerako zein txarrerako. Gogoan dut Bilboko Guggenheim museoaren hastapenetan Txinari buruzko erakusketa erraldoian ikusitako pieza txiki bat: artelan ezin ederragorik zirudien, baina gerra-makina baten parte zen.

Gehienetan, asmazio berriak mami-tzeko baliatzen dugu sormena, gauza zahar edo akastunei iskin eginda.

Gehiagotan saiatu beharko genuke errealitateari (eta gure baitari) beste begi batzuekin so egin eta sormena kanpoan zein barruan ditugun gauza hautsiak konpontzeko erabiltzen, gauza berriak sortzen eta sortzen ibili gabe. Garai batean bezala, lapikoaren ipurdian trapu. ●

Karakoil bizitzak



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Argi dago etorkizunean ez dugula bakoitzak gure autoa ukanen. Beribila luxu bilakatuko da, eskaeraren biderkatzeak kilowattaren prezioak gora haiatuko dituelako. Nuklearrak ez ditu premia guztiak aseko, zentralak zaharkituak dira eta 70eko urteetan salatzen ziren atomoaren kutsadura arriskuak hor daude. Egoerak gure mugikortasunak berrikustera behartuko gaitu.

Badut kusina bat “gaixoa *xu*, beti oinez!” penatuaz agurtzen nauena, buhame pobre haietatik bat banintz bezala, kotxea erosteko sosik aski ez dudala uste duelako. Momentuan, ikusten da,

garraio kolektiboetan diru-baliabide gutxiko jendea dabilela, mugaren alde honetan bederen, Hegoaldean ezberdina delako. Orokorrean, auto individualaren dolua egitekoa dugu.

Gogoeta hauek egin ditut Euskal Elkargoak plazaratu duen Txik-Txak aplikazioari beha; autorik gabe ez gara gehiago gure denboraren jabe, ibilbidea eta jargia-kidea ez dugu hautatzen... lekutik lekura goaz kirola zapatak oinetan, tabletak ahurretan eta motxilak bizkarrean, aldi berean likido eta uher, karakoil abiadurako nomaden gisara...

Maite dut jada datorkigun garai hau. ●